



HEZKUNTZA PROIEKTUA

2015-2016 IKASTURTEA

AURKIBIDEA

0.- Sarrera

1.- Justifikazioa

2.- Egoera

3.- Nortasuna eta ezaugarriak

3.1.- Ikastolaren berriazko izaera

3.2.- Ikastolen kolektiboen izaera komuna

4.- Hezkuntza Eredua

4.1.-Ikastolako Oinarrizko curriculum komuna

4.1.1.- Hezkuntza Xedeak

A.- Bizitza osorako Hezkuntza Xedeak

B.- Hezkuntzaren Xedeak Oinarrizko curriculum aldirako

C.- Oinarrizko konpetentziak eta hezkuntza konpetentzia Orokorrak

4.2.- Ikastolako curriculum espezifikoa

4.2.1.- Ikas-arloak

4.3.- Ikaslearen irteera profila

4.3.1.- Eremu pertsonala

4.3.2.- Eremu akademikoa eta lan-eremua

4.-4.- Tutoretza eta orientazioa

4.-5.- Hizkuntza Proiektua

5.- Antolaketa Proiektua



0.- SARRERA

Urretxu-Zumarraga Ikastola kooperatiba Elkartek, Urretxuko udalerrian kokatutako Hezkuntza zentroa gara, Gure nortasun juridikoa kooperatiba izanik, Euskadiko Kooperatibei buruz Eusko Legebiltzarrak onetsitako Legearen printzipioen eta xedapenen arabera, eta gainerako lege aginduei eta Estatutuei loturik dagoena.

Honela, Urretxu-Zumarraga Ikastolaren helburuetako bat herriari ikasleen hezkuntza zerbitzua eskaintza denez, HERRI ONURAKO KOOPERATIBAren izaera du.

1.- JUSTIFIKAZIOA

Ohikoa izan dugu Hezkuntza Proiektuaz ikasleekin zuzenean egiten dugun lana ulertzea. Baina haratago joanez, Hezkuntza Proiektua Ikastolaren bizitza gidatzen duen tresna da. Ikastolan egiten den guztia ikasleekiko lortu nahi dugun proiektuan jasotzen diren asmoei erantzungo die, noski. Hauek lirateke Hezkuntza Proiektuaren eginkizun nagusiak:

- Ikastolak dituen hezkuntza asmoak esplizitatzea.
- Pedagogia praktika gidatzea eta orientatzea.
- Haur eta gazteen hezkuntzan eragile guztion koherentziarako hizpide izatea.

1.1.Zein da bere eragilea?

Ikastolako komunitatea (guraso zein irakasle eta adinean gora igoz ikasleak) da hezkuntza asmoak esplizitatu, adostu eta planifikatu egingo dituen. Zentzu honetan, Hezkuntza Proiektuak Ikastolaren bizitza eta dinamika osoari eragingo dio eta honen ildotik hezkuntza aktibitate guztiak eskola komunitate partaide guztientzako izango dira. Era berean, gure Ikastolak beste ikastolekin batera Euskal Herriaren garapena bultzatuko duen Euskal curriculum landuko du eta bere garapenean eragile aktiboa izango da.

Filosofia partehartzaile honek Ikastolaren arrakasta lagunduko du hezkuntza komunitateko kide guztien partaidetzaren arabera lortuko baita eraginkortasun handiagoa. Zalantzarik gabe, partaidetza handitzen den heinean , helburuak lortzeko aukerak handiagoak izango dira.



1.2.-Gure errealitatean sustraituta

Hezkuntza Proiektuak gure errealitatea ea ingurune hurbileko egoera izan behar du kontutan eta bere horretan ardaztu beharko du gure bizitza, bizi dugun gizartearen eragile aktibo bihurtuz. Halaber gure baloreen, ikusmoldeen eta ohituren elikatzaile, eta bizigune izango gara.

1.3.-Gizarte hezitzailea

Harago joan da ez dugu pentsatu behar eskola denik hezkuntza proiektuaren eragile bakarra. Proporzionalki astean eta hilabeteen zehar gutxi dira ikasleak Ikastolan pasatzen dituzten orduak, baita ere txikia eskolak besteekiko izan dezakeen eragina. Pertsonaren hezkuntzan, Ikastolak bezain beste, familiak eta gizartean eragiten dute. Beraz, gizartea bera hezitzailea izatea lortzea da helburu.

Herri edota hirietako asmoak hezitzaileak izatea lortzen dugun heinean aurrera pausu handia ematen ari garela esan dezakegu.


Eraldaketa honetara denok gaude deituta: familiak, eskolak, erakunde sozialak, eragile politikoak eta gizartea bere osotasunean. Gizarte hezitzaile bat lortzen dugun heinean, gure haur eta gazteek euren giza garapenerako testuinguru egokia aurkituko dutela ziurtatu dezakegu.

1.4.-Bizitza filosofia

Azkenean, Hezkuntza Proiektuak “bizitza filosofia “ baten isla izan behar du. Bizitza ulertzeko modu bat. Norberari eta besteekin batera zoriontasuna eta eta benetako ongizatea lortzera eramango dion filosofia. Guzti hau da Hezkuntza Proiektuaren azken xedea.

1.2.- Hezkuntza proiektuaren planteamendu orokorra

Aurreko guztiarekin koherentzian, jarraian agertzen dugun taulan jasotzen dugu gure Ikastolak duen Hezkuntza Proiektuaren osagaiak eta euren arteko loturak:



2.- EGOERA

1966ko urrian ikastola sortu zen eskola emateko baimenik gabe. Honela, hasiera batean "escuela vasca para párvulos" bezala agertzen zaigu izendatua. Pagoeta konbentuko antzoki eta atariaren artean bi gela prestatu eta 3-6 urte bitarteko 88 haurrekin hasi ziren lanean Nekane Arrizabalaga izeneko andereñoa eta bi laguntzaileak.

Egun, ordea, Hezkuntza etapa guztiak eskaintzen ditu: Haur Hezkuntzako 2 zikloak, lehen Mailako Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa.

1100 ikasle inguru ditu Urretxu-Zumarraga Ikastolak eta 90 langile. Hezkuntzaz gain jangela eta garraio zerbitzuak ditu.

3.- NORTASUNA ETA EZAUGARRIAK

3.1.- Ikastolaren berariazko izaera

Urretxu-Zumarraga Ikastola hezkuntza komunitate irekia da eta pentsaera, izaera nahiz inguru eta munduari buruzko ikusmolde ezberdinak dituzten pertsonen osatuta dago. Eta hauen arteko elkarbizitza eta bere garapena elkarriketan oinarritu nahi ditu.

Ikastola, ikasleek ez ezik gurasoek eta langileek ere osatzen dute eta bertan landu nahi ditugun baloreak zaindu eta bultzatzea guztiei dagozkie. Honela definitzen ditu Ikastolak bere misioa, jorratu nahi dituen baloreak, ikusmira eta bere xedea:

MISIOA

Herri ekimenetik sortutako ikastola gara, euskara eta euskal kulturarekin konprometitua eta, aldi beran, beste kulturetara irekiak. Etengabeko hobekuntzaren bidez, partaide guztien elkarlanean oinarrituz eta ikasle guztiak kontuan izanez, pertsona bezala bere osotasunean, prestakuntzarik onena eskaini nahi du.

JOKAERAK

Gure definizioetan jasotzen diren asmoak aurrera eraman ahal izateko, Ikastolak definituta ditu bere partaideen ezaugarri edota jokaera zeintzuk izan behar duten. Jokaera hauek gu guztion erreferente dira egunerokotasuneko lanean eta baita edozein aktibitate burutzerakoan edota erabakia hartzeko unean.

Pertsona



- Urretxu-Zumarraga Ikastolan garrantzitsuen pertsonak gara.
- Gu guztiongan erabateko konfidantza jartzen dugu.
- Urretxu-Zumarraga Ikastola garen ongizatea eta garapen pertsonala eta profesionala dira gure etorkizunaren oinarri.

Erantzukizun partekatua

- Denok gara Ikastolaren Urretxu-Zumarraga Ikastolaren erantzule.
- Talde autogestioatuen bitartez inplikatzeko gara.
- Sortzen diren beharrei erantzun bizkorrak, hurbilekoak eta egokiak ematea da gure helburua.

Lankidetzaren

- Gure ezaugarri nagusia talde lana da.
- Gardentasunez jokatzeko gara komunikazioa giroaren erantzule.

Koherentzia

- Esan, garen eta egiten dugunaren arteko koherentzia dugu sinesgarritasunaren irizpide.

Berrikuntza

- Hezkuntzan
- Informazio eta komunikazio teknologietan
- Kudeaketa sisteman
- Hezkuntza instituzioekin lankidetzan.

BALOREAK

Nolako ikaslea /pertsona hezi nahi dugun galderari erantzuten dioten baloreak definituta dauzka Urretxu-Zumarraga Ikastolak. Balorea hauek “Kode Etikoa “ deituriko dokumentuan jasota daude eta 2009-2010 ikasturtean gure Hezkuntza Komunitate osoak onartuta. Ondoren bertan esplizitatuta dauden baloreak zerrendatuta baino ez dira azalduko:



- Errespetua
- Tolerantzia
- Adostasuna
- Sormena eta inizatiba
- Ardura eta autonomia
- Nortasun propioa eta jarrera kritikoa
- Euskalduntasuna eta kulturekiko errespetua.
- Hezkidetzeta.
- Ingurumenarekiko errespetua
- Adeitsua.

IKUSMIRA

Urretxu-Zumarraga Ikastola hezkuntza komunitate dialogikoa eta gorengo kalitatezko ikastetxea izatea nahi dugu, berrikuntzaren bila diharduena. Herrian txertatua eta familia guztientzat irekia. Bertako giza baliabideen prestakuntza eta asetze mailaz baliatuz, familien eta, batez ere, ikasleen beharrei erantzuteko gaitasuna duena.

(Lehen aipatu den bezala Urretxu-Zumarraga Ikastolako ikusmiran definitzen dena nola ulertu behar den 2009-2010 ikasturtean onartutako “ kode etikoa 2 dokumentuan zehaztuta azaltzen da)

3.2.- Ikastolen kolektiboaren izaera komuna

Urretxu-Zumarraga Ikastola Euskal Herriko Ikastolen Kooperatiba europar Elkartearen kidea da eta berak egiten ditu Ikastolek VI. Batzarrean onartutako “Ikastolak orain eta gero” txostenean adostutako printzipioak. Hala nola:

- Ikastolek hezkuntza-sarea eratuta dute, ikastolen titularra antolakuntza, alegia, beren proiektu komuna garatzeko, Ikastola bakoitzari bere berriazko proiektua garatzen laguntzeko, ikastolak kolektibo edo talde gisa ordezkatzeko eta hezkuntza euskalduna ikastolen esparrutik harago eragiteko
- Ikastolen taldea Euskal Herriarekin identifikatzen du bere jarduera-esparrua eta hezkuntza-komunitate orok bere kultura-ondarea muga administratiboetatik harago transmititu ahal izateko irakaskuntza antolatzeke duen eskubidearen arabera jarduten du.
- Ikastolen taldea lankidetzaren bidez kudeatutako antolakuntza da eta bere berriazko jokoa arauak ditu, ikastola bakoitzeko bultzatutako elkarketa eta ekimen bidezko kultura baten fruitu dena, hezkuntza proiektu komunarekin konprometituta dauden kolektiboko profesionalek bermatu eta bultzatua
- Ikastolen taldea duen izaera herritarra dela bide, subjektu eraginkor eta lankide da Euskal Herriaren garapenean eta bere berriazko hezkuntza sisteman, euskararen garapenean eta beta bere kulturarenean.
- Ikastolen taldeak oinarritzko curriculum komuna partekatzen du eta, curriculum horrek, bere hezkuntza ereduari eta euskal curriculum espezifikoari dagozkion edukiak islatzen ditu
- Ikastolen hezkuntza-sareak, bere berriazko zerbitzu kolektiboen multzoa du.
- Ikastolen arteko komunikazio estu eta sendoarekin antolatuta dago sarea et horrek ematen ditu ezagutzera testu inguru zehatz bakoitzean sortzen diren beharizanak eta eskatutako zerbitzu kolektibo gisa identifikatu, planifikatu, garatu eta inplementatzen direnak, gero beren emaitzen berri emanez.
- Zerbitzu horiek ikastolak onetsi eta ebaluatuek izaten dira adostutako gobernu organoen bidez.

4.- HEZKUNTZA EREDUA

4.1.-AURREKARIAK

Gizartean ematen ari diren aldaketak ez dira sekula izan hain azkarrak. Ezagutzaren eta teknologiaren abiada, psikologia, pedagogia eta neurozientziaren aportazioak, ikerketak... guzti horiek Ikastolan eman behar diren aldaketak gidatu beharko dituzte.

Egun aski frogatuta dago Hezkuntzaren paradigma tradizionala aldatu beharra dagoela, eta askoren ustetan aldaketa baino gehiago eskolaren eraldaketaz hitz egiten dute.

Urretxu-Zumarraga Ikastolak ere sinisten du eskola ereduaren eraldaketaz eta, tentuz eta zuhurtziaz egingo baditu ere aldaketak, sinisten du XXI. mendeko Ikastola izan nahi duela eta horretara bideratuko ditu bere jarduerak guztiak.

Psikologiak eta neurozientziak, pertsonaren zirrarekin, kognizioarekin loturiko ezagutza berria garatzen ari dira azken urteotan. Horri esker orain asko dakigu ikasleek ikasteko egiten duten bide kognitiboari buruz, ikas prozesua bultzatzen eta eragozten duten faktoreei buruz, zirrarek ikaskuntzan duten egitekoari eta garrantziari buruz (Rafael Cristobal.- Howard Gardner).

Horrek guztiak ikaslea veste modu batetara begiratzera eramaten gaitu, ikaskuntzaren subjektu aktibo moduan ikusten dugularik (Ikasleari begirada)



IKASLEARI BEGIRADA

4.2.- GURE XEDEA

Ikasle euskalduna hezi, bere dimentsio personal, sozial eta akademikoan.

4.1.-Ikastolako Oinarrizko Curriculum komuna

Urretxu-Zumarraga Ikastolak bereak egiten ditu Ikastolen Oinarrizko Curriculum komunaz Ikastoletako VI Batzarrean bozkatu eta adostu zirenak eta hartara, honako hauek finkatu ditu bere Hezkuntza Proiektuan:

- Hezkuntza-xedeak
- Oinarrizko konpetentziak eta Hezkuntza-konpetentzia orokorrak
- Hizkuntza Proiektua
- Euskal curriculum espezifikoa

Baina ere baerean gure Ikastolako testuingurura egokitzea eta Hezkuntza Eredu propioa izatea da gure jomuga.

Hezkuntza-xedeak

Urretxu-Zumarraga Ikastola, baliozkotzat jotzen ditu eta prest dago, Ikastola guztientzat proposatzen diren bititza guztirako hezkuntza-xedeak eta oinarrizko hezkuntzarenak geure Hezkuntza proiektuan txertatzeko. Honi jarraituz honakoak garatzera konprometitzen gara:

A.- Bititza guztirako hezkuntzaren xedea

“ Norberaren gizartearen eta naturaren errealitateak kritikoki ulertzeko, horietan eraginkortasunez ekiteko eta arduraz eraldatzeko baliabideak ematean datza hezkuntzaren xedea, era horretara, pertsonak, gizabanako gisa, gizartekide gisa ahalik eta konpetentzien gehien gara dezaten.

Beraz, Urretxu-Zumarraga Ikastolak bere ikasleei lagunduko die:

- Norbanako edo gizaki gisa, ikasle bakoitzak, besteekin batera bere biografia eraikitzen duen subjektu autonomo moduan identifikatuz.
- Gizarteko kide gisa, ikasle bakoitza, kultur aniztasuneko marko batean euskaldun legez identifikatuz.
- Naturako partaide gisa, ikasle bakoitza kosmosaren eta lurraren barruan giza espezieko partaide eta izaki bizidun legez identifikatuz.



B.- Hezkuntzaren xedeak Oinarrizko curriculum aldirako

Oinarrizko Hezkuntza aldia, bizitza guztirako den hezkuntzaren derrigorrezko etapa komuna da eta giza nortasunaren garapen batera iristeko xede hauekiko konprometitzen da Urretxu-Zumarraga Ikastola:

- Ikasleak prestatzera, unean uneko egoerei egoki erantzuteko eta helduen bizitzan sartzeko eta norbanako subjektu moduan osotasunezko bizitza bizi ahal izateko, gizartearen partaide eraginkor diren herritar izateko eta natura gorde eta garapen jasangarria gauzatzeko konprometitutako pertsonak hasteko gai izan daitezten.
- Ikasleak prestatzera, euskal kulturako eta kultura unibertsaleko oinarrizko elementuak bereganatzea lortzeko eta ondorengo ikasketak egitera joateko nahiz lan munduan sartzeko behar den bermearekin.
- Ikasleak sentiberatzera eta gaitzera, beren bizitza osoan zehar ikasketak iraunkorki eta etengabe egiteko eta garatzeko.

C.- Oinarrizko kompetentziak eta Hezkuntza-kompetentzia orokorrak

Urretxu-Zumarraga Ikastolak, baliozkotzat jotzen ditu eta prest dago Europako Parlamentuak proposatu eta “ Ley orgánica de Educación-en” (LOE) sartuak izan diren oinarrizko kompetentziak eta Euskal curriculumean proposatzen diren oinarrizko kompetentziak eta Euskal curriculumean proposatzen diren hezkuntza kompetentzia orokorrak ere gure Hezkuntza Proiektuan sartzeko.

Beraz, gure Ikastolak, Ikastolen kolektiboak oso baikorki baloratu dugun “ Derrigorrezko eskolaldirako Euskal Curriculum” deituriko dokumentuan egindako proposamena eta berau gure hezkuntza proiektuak jasoko du. Bertan proposatzen diren eta ondoren zehazten diren hezkuntza kompetentzia orokorrak lantzeko eta gure eskola curriculumean jasotzeko konpromisoa hartzen dugu Urretxu-Zumarraga ikastolako partaide garen guztiok.

- **Komunikatzen ikasi**
- **Norbera izaten ikasi**
- **Pentsatzen eta ikasten ikasi**
- **Elkarrekin bizitzen ikasi.**
- **Egiten eta ekiten ikasi**

Arestian aipatutako kompetentziak bitartekari dira alde batetik hezkuntza helburuen lorpenean eta bestetik ikasgai guztietan sartu behar diren prozedura eta jarrera edukietan, eragingarri bihurtuta. Halaber, LOEk ezarritako zortzi oinarrizko kompetentziak lortzea ahalbidetzen da.



4.2.- Ikastolako curriculum espezifikoa

4.2.1.- ikas- arloak

- Hizkuntzak eta Literatura
- Matematika
- Teknologia
- Musika eta dantza
- Plastika eta ikus adierazpena
- Gorputz Hezkuntza
- gizarte Zientziak
- Natur eta Osasun zientziak

Urretxu- Zumarraga Ikastolan landuko diren ikas arloen helburuak, konpetentzia espezifikoak, lan metodologia, lan estrategiak, ebaluaziorako irizpideak... Ikastolako curriculum proiektuan jasotzen dira. Halere bertan jasotzen dena bat dator Ikastolen Kolektiboen curriculum komunarekin.

4.3.- ikaslearen irteera profila

Ikasleak ingurune naturalari, soziokulturalari, teknologiko-zientifikoari eta hizkuntza-inguruneari eta haien dimentsio historikoei eta etikoei dagokien oinarritzko ezagutza jasotzea da ikaslearen irteera profila osatzen duten funtsezko elementuetako bat. Kultura-ondarea osatzen duten jakintzen transmisioa oinarritzko hezkuntzaren funtsezko funtzioa da; izan ere, aukera ematen du pertsonak unean unekoa zentzuz bizitzeko eta etorkizuna eraikitzeko, pertsona horrek munduan duen lekutik beretik. Kultura ondarearen transmisio hori osatzen da subjektua etorkizuneko behar eta erronkekin bat egiten duten errealitate forma berriak sortzen eta eraikitzen hasten denean, nola euskal gizartearenak hala globalak.

Oinarrizko hezkuntzaren helburua da bizitzarako prestatzea, baina bizitzarako prestatzeko moduak ez du zertan bera izan behar Oinarrizko Hezkuntza osoan. Mundua ulertzeko modua ez da bera Haur Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, eta, horregatik, interesguneak eta eta ikasketa-egoerak ezin dira berdinak izan. Haur eta Lehen Hezkuntza aldian ikasgelan eta haien ingurune hurbilean gertatzen dena da bizitza. Hau da, ikasleen bizipenak, haien behar, interes eta esperientziekin lotuta daude, baina ez dute horregatik, amaierako perspektiba galtzen. Oinarrizko Hezkuntza aurrera egin ahala, modu esanguratsu eta motibagarrian gehitzen joango dira heldutasuneko bizitzarako prestakuntzarekin lotura duten beste egoerak.

1.- Eremu pertsonala

1.1.- Eguneroko bizitza.- Eguneroko bizitza pertsonalarekin, familia-bizitzarekin, komunitateko bizitzarekin eta oinarrizko beharrekin lotura duten arazoak konpontzeko trebezia eta abildade teknikoak eta instrumentalak lortzeko egoerak.



1.2.- Bizitza ludiko-estetikoa.- Arte plastikoak, dantza, musika, jolasak, literatura... praktikatzeko eta haietaz gozatzeko egoerak.

1.3.- Bizitza afektibo-emozionala.- Autokontrola eta oreka emozionala, autoestimua, autonomia eta sentsibilitate estetikoak eskura dezaten egoerak.

1.4.- Bizitza soziala.- Taldean bizi eta taldean lan egiteko estrategiak, modu afektiboan eta eta arduratsuan, bere betebeharren jabe izan dadin estrategiak (Lan kooperatiboa).

1.5.- Bizitza fisiko eta naturala.- Bere gorputza zaindu dezan, oihura osasuntsuak izan ditzan egoerak. Halaber ingurumena kontserbatzeko eta hobetzeko jarrerak landu.

2.- Eremu akademikoa eta lan-eremua

2.1.- Bizitza akademikoa.- Ikasketei eta geroko prestakuntzari egiteko prest eta gogotsu azaldu dadin egoerak planteatu. (Egiteko moduko erronkak planteatu, beti ere esfortzuak eta lan egiteak duen garrantzia azpimarratuz)

2.2.- Lan-bizitza.- Ideiak ekintza bihurtzeko gaitasuna emango dioten ezaugarri pertsonalak eta sozialak garatzeko egoerak planteatu, baita kudeaketari dagozkionak ere.

4.4.- Tutoretza eta orientazioa

Ikasleari laguntzeko etengabeko prozesua da Tutoretza eta Orientazioa, eta dimentsio guztietan aintzat hartzen du haren garapena, norbanako, gizarteko kide eta naturako parte-hartzaile gisa.

Arlo guztiek dute Oinarrizko Konpetentzia Orokorrak garatzeko hezkuntza-funtzioa, baina koordinatzeko eta kohesionatzeko funtzioa du Tutoretza/Orientazioa arloak. Era berean, ikasleen ikasketa-prozesuaren eta komunikazio-prozesuaren, sozializazio-prozesuaren, garapen pertsonalaren prozesuaren eta ikasketa-prozesuaren banakako jarraipena egitea, irakasleen eta familiaren laguntzarekin.

Eginkizun espezifikotako bat da ibilbide akademikoari eta profesionalari buruzko orientazio profesionala ematea, norberaren burua eta lan-merkatua ezagutzetik abiatuta.

(IKUS URRETXU- ZUMARRAGA IKASTOLAKO TUTORETZA ETA ORIENTAZIO PLANA)

4.5.- Hizkuntza-proiektua

Hizkuntza ikuspegia

Hizkuntzak pertsonaren garapen indibiduala eta soziala lortzeko tresna nagusia direnez “komunikatzen ikasi” konpetentzia orokorraren osagai gisa landuko da konpetentzia linguistikoa, Ikastolako eremu oro kontuan hartuz eta hezkuntza komunitateko estamentu guztien elkarlari esker. Hizkuntzekiko helburua, ikasleak gizarte-bizitzarako egoera eta behar guztietarako hizkuntzaren erabilera eraginkorra egiteko gaitzea da. Hortaz, egoera eta behar askotariko horiei erantzunez

sorturiko testu generoen eta ekoizpenean eta horien gaineko hausnarketan oinarrituko da irakaskuntza prozesua. Hizkuntzaren diskurtso-ikuspegia, beraz, curriculum-deseinu honen oinarrian dago.

(*IKUS URRETXU-ZUMARRAGA IKASTOLAKO HIZKUNTZA PROIEKTUA DOKUMENTUA*).